

“ ”

Ni, diasporako alaba, neure buruaren kontra borrokan bizi nintzen Alemanian

Samira Belyouaou
Amazigera hiztuna

Samira Belyouaou (Heidelberg, Alemania, 1994) diasporako alaba da. Gurasoak Rifén (Maroko) jaioak, Alemanian Samira alabak eta lau seme-alaba gehiagok amazigera izan zuten etxeko hizkuntza. Itzulpengintza ikasketak egin, software enpresa batean ari da, beren produktuak 80 hizkuntzataraz itzultzeko lanak kudea-

tzen. Garabideren Aditu programa bete du iragan udazkenean, eta mintzatu zaigu bere lehen hizkuntzaz. Egun, 3,6 milioi pertsonak hitz egiten dute amazigera Marokon eta Aljerian –eta diasporan, esan beharko da–, eta 2011z gero ofizialtasun estatusa du bi herrialdeotan, erregulatutik ez badago ere.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

Samira Belyouaou haurra amaren altzoan bizi izan zen, etxean amazigeraz besterik hitz egiten ez zutela. 3 urtetan eskolara hasi zenean, diferentea zela ohartu zen. Nekarhausen herri txikian, ikasgelan ile kizkurra zuen ume bakarra zen.

Diferentea izateak bazterkeria dakar, ez gutxitan.

Diferentea nintzen, baina ez nuen arbuiorik jaso. Nik gero baino gero alemanago izan nahi nuen, oharturik in-

gurukoek ez nindutela aleman bezala ikusten. Ni “bestea” nintzen. 2001ean, adibidez, Dorre Bikien (New York, AEB) kontrako erasoak izan zenean, halako zera bat sentitu nuen, erasoan errudun banintz bezala. Umemokoa banintzen ere! Ordurako, diferentea nintzela sentitzen nuen eta, esan dut, gainerakoak bezain alemana izan nahi nuela. Xelebrea da, zeren udan Rifera joaten gineanean, eta besoak zabalik hartzen bagintuzten ere, haiek ez bezalakoa nintzela sentitzen nuen. Kar-kar! Ordukoak dira

identitate auziak. Sekulako nahaste-borrastea nuen.

Noiz askatu zenuen identitate korapilo hori?

Unibertsitate garaian, tesia egiten hasi nintzenean. Gaztelaniatik Rifeko hizkuntzara heldutako maileguei buruz ikeritzen hasi nintzen. Horretarako, orde, gogotik ikertu beharra neukan, eta, adibidez, Rifeko lurretan tarifita eta amazigera [tarifita Rifeko aldaera da eta amazigerak lurralde zabalagoa hartzen du]



zertan ziren aztertu behar nuen. Ordu arte, esan behar dut, erdibiturik bezala bizi nintzen: nire baitako alde alemanak beste alde, amaziga, arbuiatzen zuen. Erraz hitz egiten nuen tarifita, baina, nire hizkuntzan hitz egin baino, nahiago nuen arabieraz hobeto hitz egin, edo frantsesez. Jakina, bertakoek bezala hitz egiten nuen alemanez, zuzen eta artez, eta denak ere nire tarifita baino prestigio handiagoak ziren!

“ ”

Unibertsitatean hasi arte, erdibiturik bezala bizi nintzen: nire baitako alde alemanak beste alde, amaziga, arbuiatzen zuen

Eta, hortaz, noiz aldatu zen zure baitako ustea, tarifitaren aldera, esan nahi dut?

Nire baitako beste alde gordeago hori –Rifeko kulturaz ari naiz– ikertzen ari nintzela, hari balioa ematen hasi nintzen, nahiz ez nuen ahazten Alemanian jaio eta hazia nintzela. Heidebergen, edo Neckarhausen-en, alemanez pentsatzen nuen. Rifeko udaldietan, tarifit hizkuntzan. “Hauxe naiz ni, beste gabe, ez dut neure burua definitzen zertan ibili. Halakoxea naiz eta kito!”. Esan dut ez nuela arbuiorik jaso, kideek beste gabe onartzen nindutela, baina batzuetan pentsatzen nuen ez nindutela ulertzen. Oso interesgarria da, zeren nire egoera berean ziren kurdu batzuk, edo beste herrialderen batetik Alemaniara migratutakoak jendearen seme-alabak.



Eta guk bai, elkar ulertzen genuen, elkar ulertzen dugu, eta partekatzen dugu erdibiturik bizitze hori. Egun, ez nago bakarrik, baina Neckarhausen hartan, turkiar bat eta biok eskolako "arraroak" izan ginen.

Unibertsitate ikasketak eginak dituzu, itzultzaile zara lanbidez. Nola heldu zara Garabideko Aditu programa egitera?

Bidaia handia egin dut hona etorri baino lehen. Tesi harekin hasi zen bidaia. Ikertzen ari nintzela, ikaragarria iruditu zitzaidan deskubritzen ari nintzena. Gordin esango dut orduko hartan pentsatzen nuena: "Ez dago ezer biziberritzen ibili beharrik. Hizkuntza aldagaia ekuaziotik ezabatuz gero, kito nire buruko minak!". Ni, diasporako alaba, neure buruaren kontra borrokan bizi nintzen Alemanian, baina, bestalde, Rifera joan, administrazioarekin hitz egin nahi, eta tarifitak ez zuen balio. "Arabiera ikasiko dut. Kito neure buruaren kontra borrokatzea!". Uste dut horixe izan zela.

Baina esan duzu ikerketa gauzatzen ari zinela ustea aldatu zenuela.

Zenbat eta gehiago irakurri, orduan eta ageriago zen: gure hizkuntzan ere baziren poetak, bazen zientzia, bazen altxor franko. "Arraioa! Hau da, hau, aberastasuna!". Eta sare sozialetan gauzak kontatzen hasi nintzen. Eta laster, sare bat osatu genuen, amazig jendea ginen, batzuk riftarrak, beste batzuk Maroko hegoaldekoak... Alemanian jaio edota

“ ”

Gordin esango dut pentsatzen nuena: 'Ez dago ezer biziberritzen ibili beharrik. Hizkuntza aldagaia ekuaziotik ezabatuz gero, kito nire buruko minak!'

haziak ginen denok, egoera bera bizi genuen. Eta, ohartu nintzenez, jendeak hizkuntzarekiko interesa zuen, eta garai batean nik uste nuen bezala uste zuten – uste ustela! –, gure hizkuntzan libururik ez zela, ez kulturarik, ez letrarik... Nire uste oker bera zuten. Ez zekiten ni jakitera heldu nintzena. Informaziorik ez!

Unibertsitateko ikerketa bidez zeureganatu zenuen informazioaz ari zara.

Bai. Gainera, beste hainbat hizkuntza ulertzen nituen, gaztelania, frantsesa, ingelesa... Haietan idazten ere banekien. Kontua da sarea osatu genuela tarifitez hitz egiteko. Sarea osatu eta gero, elkarre bat osatu genuen; nola-halako egitura bat izateko, alegia. Horretan, kide batek Garabideko formakuntza ikastaroaren

berri eman zidan. Gaztelaniaz zertxobait jakitea eta hizkuntzak biziberritzeko guraria izatea besterik ez omen zen behar. "Interesgarria, gero!", pentsatu nuen. Eta etorri nintzen. Kar-kar!

Esaguzu, faborez, zertan den tarifitez hitz egiteko sare hori.

Ez dugu biltzeko toki finkorik, sare bidez mintzatzen gara gehienbat. Lantzean, inoren etxean edo kafetegiren batean elkartzeko gara. Hasmentan, gure bilkurak guztiz informalak ziren, jolas egiten genuela esango nuke, amazigeraz hitz egiten genuen, barre egiten... Gure arteko batzuek ulertu baizik ez dute egiten. Beste batzuek dotore hitz egiten dute. Elkartasun sentipen handia genuen. Jolasak egiten hasi ginen, baina honetaz eta hartaz hitz egiteari lotu gintzaizkion laster; gai sozialak, nahi baduzu: "Halakok ez du tarifita etxetik jaso, halako garaian bere herrian hizkuntzaren transmisioa galarazi zutelako, halako eta halako arrazoiengatik". Edo, besteren batek esan zuena, adibidez: "Nik etxean tarifitez hitz egin nahi dut. Has ten naiz hizketan, eta etxeokoe barre egiten didate, burla! Eta tarifitez hitz egiteari utzi diot".

Gertaera arrunta da hizkuntza guztietan ere, nonbait. Are gehiago, hizkuntza gutxituen kasuan.

Guk, esate baterako, gure artean psikologo zirenei galdezka hasi ginen, gure hizkuntzan hitz egiteko lotsa zutenen egoerari buruz hitz egiteko. Gogoan dut gai horretaz online jardun genuela, eta mintzaldi hartan 50en bat lagunek parte hartu zutela. Batzuk Frankfurtetik konektatu ziren, beste batzuk Dusseldorf edota Koloniatik, edo Berlindik... Guztiz interesatuta zeuden! Hurrena, jardunaldiak eratzen hasi ginen, ekitaldi presentzialak, ordu arte online jardun genuen eta.

Garabiden izan zaitugu, eta, orain, zer hizkuntz asmo zeure herrialdera itzultzen zarenean?

Alemanien eta Marokoren artean bada itun bat, zeinaren bitartez Alemaniara migratutako familien seme-alabek beren hizkuntzan ere eskolatuak izateko eskubidea duten. Alegia, alemanez bideratzen da hezkuntza, baina arabierazko, kurdierazko edota gaztelaniazko ikastaroak eskaintzen dituzte. Gure esku dago Marokok Frankfurten duen kontsultura joatea eta irakasle ma-



rokoar bat eskatzea. Jakina, besterik gabe, kontsulatuak ez digu bidaliko amazigera irakatsiko duen irakaslerik, arabiera irakatsiko duena baizik. Nik, berriz, kontsulatu horretara joan nahiko nuke, eta gure ama hizkuntzan irakatsiko duen Rifeko irakaslearen baten eskaria egin, eskolan tarifta irakasteko.

Bideragarria da?

Ez dakit, bada! Oraintxe, are gehiago da ametsa, errealtate egingarria baino. Baina nork daki! Eskubidea genuke, baina ez dago jakiterik. Esate baterako, iaz Tarifan (Cadiz, Andaluzia) amazigera irakasle batekin egin genuen bilera, eta hark iragan mendeko 90eko hamarkadako Frankfurturten bizi izan zuen egoeraz hitz egin zigun. Zioenez, amazigera ikastaroaren proposamena egin zuen bertako komunitatearen baitan, baina, harrigarriki –harrigarriki-edo–, diasporako amazig jendeak uko egin zion delako ikastaro hari. Orduko kontuak.

Besterik da gaur egun, zure ustez?

Baietz esango nuke. Uste dut gaur egun egoera bestelakoa dela, jendeak hizkuntz kontzientzia handiagoa duela, eta kontzientzia handia ez badu, interes handiagoa, behintzat, badu. Orditik hona, 30 urte geroago, uste dut puntu hobean gaudela, hemendik atea-



ra den proiektuari ekiteko moduan. Nik, esaterako, hiztunak alfabetatzen hasi nahi dut. Jendea alfabetatuta, gero baino gero irakasle gehiago izango ditugu. Marokoko Gobernuaren laguntzarik gabe ere, bidean oinez hasi ezinik ez dugu. Eta gero gerokoak.

Zer diozu Garabideko egonaldian ezagutu dituzun gainerako hizkuntz komunitateetako egoerez?

Batetik, uste nuen –amazigera hiztunak, oro har, eta tarift hiztunak barne– oso egoera txarrean ginela. Honezkero, halako eta halako tresnak eta eduki behar genituzkeela. Baina Garabidera etorri eta ikusi dut hainbat herrik egoera dramatiko bizi dutela, oso hiztun gutxi direla, edota –adibidez– familia bidezko transmisioa indartzeko lanean ari direla, katea eten ez dadin. Horrek zer pentsa galanta eman dit: “Hobeko dugu guk ere lan egin, hemendik urte batzuetara gure komunitatea ere egoera horretara ez heltzeko!”. Bestalde, ikusi dut zenbait herrik gogotik egin dutela lan, dela estandarizazioa landu dutelako, dela gogor ari direlako elkarlanean eta denak batera; zuenean bezala, nire iritziz. Finean, nahi beste errealtate daudela ikusi dut, ez dagoela egoera zeharo zuririk ez beltzik, kolore anabasa nagusi dela besterik. ●

Elhuyarren ahots automatikoak

Sare neuronalen bidez sorturiko ahotsak

6 hizkuntza: euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa, katalana eta galegoa

Entzun testuak automatikoki
Ahots pertsonalizatuak sortu

ttsneurala.elhuyar.eus

elhuyar
ezagutuz aldatzea

